

KOSTUEN EGITURA

Atal honetan gure produktua aurrera ateratzeko enpresak behar duen diru kopuruari buruz hitz egingo dugu.

Horretarako hasiera batean aipatuko dugu zer behar dugun gure etxeak sortzeko eta saltzeko, eta azkenean behar dugun hori zenbateko kostua edukiko zuen.

Behar dugun lehenengo gauza etxeak egiteko behar diren materialak izango ziren (egurra, burnia, kristala, plastikoa...).

Bigarren gauza etxeak eraikitzeko eta diseinatzeko beharrezkoak diren pertsonak dira. Bertan bakarrik eskulanerako langileak eta diseinugileak sartuko ziren (gure etxeak muntatzeko eta diseinatzeko).

Hirugarren gauza garraio enpresa profesional eta seguru bat alokatzea izango zen, etxeen distribuzioa hoberen eta azkarren egiteko. Hemen barruan etxeak bezeroarengana eramatea eta instalatzea sartuko zen.

Laugarren gauza bezala lokala alokatzea egongo zen. Honen barruan lokalaren alokailu prezioa eta bertan egiten diren gastuak sartuko ziren: ura, elektrizitatea, aseguruak, konponketak...

Gure etxeak jakitera emateko iragarkiak eta web-orrialde propio bat egin behar dugu. Horretarako web diseinugile bat kontratatu beharko dugu, atal hau eraman ahal izateko.

Erositako materialak lantzeko, eta bezeroak eskatutako moduan jartzeko, makina berezi eta espezifikoko batzuk behar ditugu. Horretarako, hainbat makinetan inbertituko dugu diru gehiena.



Gure kostuen egituraren hurbilketa:

Materialak: Etxeak egiteko behar ditugun material birziklatu eta material berri guztiak kontutan artuta, hasteko 100.000€ inbertituko ditugu hainbat etxe egiteko behar diren materialak erosteko.

Soldatak: Hasiera batean, irabaziak eduki arte, ezin dugu finkatu zenbateko saldatak izango dituzten gure langileak. Enpresa egokitzen denean, pentsatu dugun soldata egokiena 2300€ eta 2500€ hilerokoa izan da.

Interneta: Gure lokalari interneta edukitzearen kostua 70€ hilerokoa izango da

Patentea: Gure idea merkaturatzeko eta arazoak ez sortzeko patente bat egingo dugu. Patentearen kostua 900€ ingurukoa izango da.

Garraio enpresa: Garraio enpresari 2500€ ordainduko diogu garraio bakoitzeko.

Lokala: Gure ingurura eta beharrei gehien egokitzen den lokal bat aurkitu dugu, eta bere prezioa 2000€ hilerokoa da.

Argia: Argiaren kostua 300 eurokoa izango da hileroko.

Publizitatea: Publizitatea eta web orrialdeak kudeatzen duen enpresari 400€ hilero ordainduko diogu.

Makinak: Materialak lantzeko makina guztien artean 300.000 € inguru inbertituko ditugu.